EUSKAL
ZUZENBIDE
ZIBILAREN
BATZORDEA

COMISIÓN DE
DERECHO
CIVIL
VASCO

DOKUMENTU METODOLOGIKOA ETA ESTATISTIKOA (2015-2018 EBALUAZIOA).

EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN BATZORDEA

COMISIÓN DE DERECHO CIVIL VASCO

DOKUMENTU METODOLOGIKOA ETA ESTATISTIKOA (2015-2018 EBALUAZIOA).

I. Erabilitako metodologiaren azalpena. 8

II. Taula estatistikoak. 14

A. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN APLIKAZIOAREN EBALUAZIO OROKORRA 14

A.1 Arlo zibileko epaileek eta auzitegiek edo euskal zuzenbide zibilaren arauak aplikatzen dituztenek emandako ebazpen judizialak, organo judizialaren arabera banatuta 14

A.2 Arlo zibileko epaileek eta auzitegiek edo euskal zuzenbide zibilaren arauak aplikatzen dituztenek emandako ebazpen judizialak, kontuan hartuta arloak eta aipatutako arauak 15

A.3 Aldatzeko, argitzeko edo zuzentzeko eskritura / Ongitze-akta 15

B. ZUZENBIDE ZIBIL OROKORRA 16

B.I.- Euskal auzotasun zibila eta tokiko auzotasun zibila_Toc62733036 16

B.1 2016ko urtarrilaren 1eko biztanleria, udalerriaren eta entitatearen arabera, bizileku-denboraren arabera 16

B.2 2016ko urtarrilaren 1eko biztanleria, udalerriaren eta entitatearen arabera, lehenago aplikatzen zen auzotasun zibilaren arabera eta bizileku-denboraren arabera 17

C. OINORDETZA-ZUZENBIDEA 19

C.I.- Oinordetza-fenomenoa, oro har 19

C.1 EAEko heriotzak, lurralde historikoaren eta aldiaren arabera 19

C.2 Foru-aldundien diru-bilketa, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga dela eta 19

C.II.- Oinordetza-tituluak, oro har 19

C.3 Oinordetza-tituluen ehuneko erlatiboa 20

C.III.- Testamentugintza_Toc62733046 21

C.4 Pertsona bakarreko testamentu irekiak 21

C.5 Testamentu mankomunatu edo ermandadeko testamentu irekiak 21

C.6 Testamentu itxia eta testamentu olografoen edo parrokia-testamentuen protokolizazioa 22

C.7 Bestelako testamentu edo azken nahietako egintzak 23

C.IV.- Oinordetza-itunak_Toc62733050 24

C.8 Oinordetza-kontratuak, ondasun-eskualdaketarik gabe 24

C.9 Oinordetza-kontratuak ondasunak unean bertan eskualdatuz 25

C.V.- Oinordetza-erreserbak eta itzulketak. Tronkalitatea oinordetzan. Gipuzkoako baserriaren oinordetza-antolamendua. 25

C.10 Oinordetza-tituluen bidezko adjudikazioa, ezkontza-erkidegoaren likidazioarekin edo gabe 25

C.VI.- Abintestato jaraunsleen adierazpena_Toc62733059 27

C.11 Abintestato jaraunsleentzako nabaritasun-adierazpena 27

C.12 Abintestato alboko jaraunsleen nabaritasun-akta 28

C.VII.- Jarauntsiari uko egitea eta alargun-eskubideak azkentzea 29

C.13 Jarauntsiari edo seniparteari (etorkizunekoari barne) uko egite huts eta soila. 29

C.14 Jarauntsiari uko egitea, translatiboa 30

C.15 Ezkontzako eskubide ekonomikoei uko egitea 31

C.16 Gozamena, erabilera edo biztantzea azkentzea, heriotzagatik 32

C.VIII.- Beste oinordetza-egintza eta -gai batzuk 33

C.17 Jarauntsia onartzea (adjudikaziorik gabe) edo jaraunsle izatea onartzea 33

C.18 Jarauntsia inbentario-onuraren arabera onartzea 34

C.19 Kontulari banatzaile datiboa edo albazea izendatzea 35

C.IX.- Dohaintzak 36

C.20 Inter vivos dohaintzak eta doako eskualdaketak 36

C.21 Dohaintzak lehengoratzea 37

C.22 Dohaintza ezeztatzea edo suntsiaraztea 38

C.23 Dohaintza onartzea 39

C.24 Onartzeke dauden dohaintzak 40

C.X.- Pertsonen duintasuna bizitzaren amaierako prozesuan_Toc62733065 41

C.25 Eskritura publikoan jasotako aurretiazko borondateak 41

C.26 Norberarentzako tutoretza-kargua izendatzea edo autotutoretza 42

C.27 Aurretiazko borondateak inskribatzea, aldatzea, ordeztea edo ezeztatzea administrazio-eremuan 43

D. ONDARE ZUZENBIDEA 44

D.I.- Baserria eta beste ondasun higiezin batzuk. 44

D.1 Nekazaritza-ustiategien kopurua lurralde historikoaren arabera. 44

D.2 EAEn nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektorean enplegatutako pertsonak, nortasun juridikoaren arabera eta 2012-2018 aldian 44

D.3 Titularra edo ezkontidea ez diren beste familiakide batzuen dedikazioa ustiategian 45

D.4 Bereizketak 46
D.5 Finkak zatitzea 47
D.6 Eransketak. 48
D.7 Finkak elkartzea. 49
D.8 Zatiketa horizontala eta antzeko kasuak 50
D.9 Zatiketa horizontala aldatzea edo azkentzea 51
D.10 Hirigintza-konplexua eratzea 52
D.11 Ob Rem lotzea 53
D.12 Ob Rem deslotzea 54
D.II.- Partikularren zortasunak eta igarotze-eskubidea irabazi-asmorik gabeko erabileretarako_Toc62733069 56
D.13 Zortasunak eratzea, aldatzea eta azkentzea 57
D.14 Zortasunei doan uko egitea 57
D.III.- Landa-errentamenduak eta prekarioak 58
D.15 Finken errentamendua edo azpierrentamendua 58
D.16 Intsuldaketa eta errentamendu-lagapena 59
D.17 Prekarioko lagapena edo komodatua 60
D.18 Finken errentamendua suntsiaraztea edo hitzarmenez azkentzea 61
D.IV.- Lehenespenez eskuratzeko eskubideak eta foru-saka._Toc62733073 62
D.19 Hitzarmenezko eroslehentasuna eta atzera-eskuratzea eratzea. 62
D.20 Lehentasunez eskuratzeko eskubideei uko egiteko eskriturak 63
D.21 Ondasunen eta eskubideen kostu bidezko beste lagapen batzuk 64
D.V.- Lurzorua, hirigintza eta etxebizitza_Toc62733078 65
D.22 Higiezinen salerosketa (hirikoak + landakoak) 65
D.23 Landa-higiezinen salerosketa 67
D.24 Hiri-finketako higiezinen salerosketa - etxebizitza 68
D.25 Hiri-finketako higiezinen salerosketa - Etxebizitzaz bestelako higiezinak 69
E. _Toc62733082FAMILIA-ZUZENBIDEA ETA GATAZKAK KONPONTZEKO BITARTEKOAK 70
E.I.- Familia oro har 70
E.1 Familiak, motaren eta batez besteko neurriaren arabera, 2016 70
E.2 Familiak, motaren eta erreferentziako pertsonaren legezko egoera zibilaren arabera, 2016 71

E.3 Bikote-kopurua, elkartze-motaren arabera 73

E.II.- Ezkontzaren araubide ekonomikoa_Toc62733084 73

E.4 Ezkontza-itunak, ondasunen banantzea hitzartuta 73

E.5 Ezkontzaren aurreko ezkontza-itun konparatuak, araubide ekonomiko desberdinetakoak 74

E.6 Ezkontzaren osteko ezkontza-itun konparatuak, araubide ekonomiko desberdinetakoak. 76

E.7 Ezkontza-erkidegoa eta edozein ezkontza-araubide ekonomiko likidatzea (inter vivos) 78

E.III.- Familia-harremanak gurasoen banantze eta haustura kasuetan 79

E.8 Euskal Autonomia Erkidegoko ezkontza-hausturak, aldiaren, seme-alaba adingabeen edo mendeko adin nagusikoen, probintzia judizialaren eta haustura-motaren arabera 79

E.9 Euskal Autonomia Erkidegoko ezkontza-hausturak seme-alaben zaintzaren, mantenu- edo konpentsazio-pentsioen arabera 82

E.10 Elkarbizitza hausten denerako itunak 85

E.11 Egitezko banantzeari buruzko akordioa 86

E.12 Notario bidez onartutako hitzarmen arautzaileak 87

E.13 Hitzarmen arautzailea notarioaren aurrean aldatzea 87

E.IV.-Izatezko bikoteak 88

E.14. Eskritura publikoetan formalizatutako izatezko elkartzeei buruzko akordioak. 88

E.15 Euskadin inskribatutako izatezko bikoteak. 89

E.16 Urte amaieran inskribatuta jarraitzen duten izatezko bikoteak. 90

E.17 Ezeztatutako inskripzioen batez besteko iraupena. 91

E.18 Izatezko bikoteak, ohiko bizilekuaren arabera. 92

E.19 Izatezko bikoteak, bikotekideen nazionalitatearen arabera. 93

E.20 Izatezko bikoteak, auzotasun administratiboaren arabera 95

E.21 Izatezko bikoteak, auzotasun zibilaren arabera 97

E.22 Izatezko bikoteak, bikotekideen sexuaren arabera. 99

E.23 Izatezko bikoteak, aukeratutako araubide ekonomikoaren arabera. 101

E.24 Izatezko bikoteen ezeztapenak, abiarazlearen eta kausaren arabera 102

E.V.- Haurrak eta Nerabeak Zaintzea eta Babestea 104

E.25 Emantzipazioa edo adin-gaikuntza. 104

E.26 Tutoretza-karguak izendatzea 105

E.27. Tutoretzari buruzko beste egintza batzuk. 106

E.28 Adostasun osagarria adingabe edo ezgaientzat 107

E.29 Haurren zerbitzuaren esku-hartzeak eta erakunde publikoek jagoletza edo tutoretza beren gain hartzea (zerrenda). 107

E.30 Familia-harreren eta jagoletzen zerrenda (adopzio-helburuak dituztenak eta ez dituztenak). 109

E.31 Foru-aldundiak bitartekari izan dituzten adopzioak. 111

E.VI.- Familia-zuzenbideko beste egintza batzuk, euskal zuzenbide zibileko legeekin zerikusia dutenak. 112

E.32 Bestelako familia-egintzak eta egintza pertsonalak 112

E.VII.- Familia-bitartekaritza 113

E.33 Familia bitartekaritzako zerbitzu intrajudizialak eta estrajudizialak artatutako kasuak 113

E.34 Familia-bitartekaritzan itxitako akordioen edukiak 114

E.35 Familia-bitartekaritzaren esparruan adostutako hitzarmen arauemaileen proposamenak, besteak beste jagoletza eta zaintza eta adostutako zaintzaren mota jorratzen dutenak 116

E.36 Bitartekaritza-prozesuaren batez besteko iraupena 117

E.VIII.- Arbitrajea 118

E.37 Arbitraje-laudoa protokolizatzeko aktak 118

F. PERTSONA JURIDIKOEN ZUZENBIDEA 119

F.I.- Jarduera ekonomikoaren banaketa, nortasun juridikoaren arabera 119

F.1 EAEko establezimendu ekonomikoen edo negozioen forma juridikoa 2008-2018 aldian 119

F.2 EAEko establezimendu ekonomikoen jarduera-banaketa, nortasun juridikoaren arabera, 2018 119

F.3 Euskadin pertsona fisikoen esku dauden establezimendu ekonomikoak edo negozioak, negozio bakoitzeko jardueraren eta langile kopuruaren arabera 121

F.4 Euskadin sozietateen eta pertsona juridikoen esku dauden establezimendu ekonomikoak edo negozioak, negozio bakoitzeko jardueraren eta langile kopuruaren arabera 122

F.5 Establezimendu ekonomikoek enplegatutakoak Euskadin, nortasun juridikoaren eta jarduera-sektorearen arabera 123

F.II.- Ermandadeak, kofradiak, mutualitateak eta beste sozietate zibil batzuk 125

F.6 Sozietate zibilak eratzea, forma tradizionalak barne. 125

F.7 Merkataritzakoak ez diren bestelako entitateak eratzea, nortasun juridikoa dutenak eta sozietate zibilaz bestelakoak. 126

F.III.- Fundazioak 127

F.8 EAEko fundazioen erregistroan erregistratuta dauden eta iraungi ez diren fundazioak, kontuak aurkeztearen, aldiaren, jarduera-eremuaren eta lurralde historikoaren arabera. 127

F.9 Fundazioak eskritura publikoan eratzea 128

F.10 1889 baino lehen eratutako fundazioak 129

F.IV.- Kooperatibak 132

F.11 Kooperatiba eskritura publikoan eratzea 132

F.12 EAEko kooperatiben erregistroan erregistratuta dauden kooperatibak, aldiaren, motaren eta lurralde historikoaren arabera. 133

F.13 Kooperatibak bere bazkideei adjudikatzea 134

F.14 1889 eta 1959 baino lehen eratutako kooperatibak 135

F.V.- Elkarteak 135

F.15 Elkartea eskritura publikoan eratzea 135

F.16 EAEko elkarteen erregistroan erregistratuta dauden elkarteak, aldiaren, motaren eta lurralde historikoaren arabera 136

F.VI.- Nortasun juridikoa duten erakundeak desegin, aldatu edo azkentzea 138

F.18 - Merkataritzakoak ez diren erakundeak desegitea eta azkentzea 138

F.19 Baloreen salerosketa, oro har 139

F.20 Merkataritza-baloreen salerosketa 141

F.VII.- Nortasun juridikorik gabeko erakundeak 142

F.21 Ondasun-erkidegoa eratzea 142

F.22 Nortasun juridikorik gabeko beste erakunde batzuk 143

I. Erabilitako metodologiaren azalpena.

2017ko azaroaren 29an eratu zen formalki Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea, eta lehen ohiko bilera egin zuen. Ordutik, urtean behin bildu da (2020ko parentesia izan ezik, SARS-COVID-19aren pandemiak eragindako egoeraren ondorioz). Eratze-bilera horretan aurkeztu eta eztabaidatu zen Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen 2018rako urteko jarduera- eta jarduketa-plana, eta, beraz, Batzordeko lehendakariak onartu zuen gero.

Ebaluazio-lan honek, eta bere oinarrizko edo jatorrizko planteamenduak, erabili beharreko ikuspegiari eta lan-metodologiari dagokienez, oinarritzat dituzte, beraz, aipatutako jarduera- eta jarduketa-plana, zeinean lehen aldiz sartu baitzen proposamen hau: euskal zuzenbide zibilaren egoerari eta ebaluazioari buruzko ikerketa egitea, asmo zabalekoa eta Batzordearen etorkizuneko lanetarako oinarri izango zena.

Hasieratik jarduketa-plan horretan planteatu zuten bezala:

Hona hemen ikerketa horren helburua: «Euskal Zuzenbide Zibilaren abiapuntu-egoera baloratzeko lehenengo hurbilketa izatea, euskal zuzenbide zibilaren garapena une oso berezian dagoelako; zehazki, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea eta haren garapenaren ildotik egin diren gainerako legeak indarrean jarri direnetik eginiko jarduna ebaluatuko da, batzordean egin daitezkeen hausnarketak eta eztabaidak bultzatzeko».

Batzordeko osaerak berak ahalbidetzen dituen ezagutza sakona eta askotariko ikuspegiak baliatuta, batzordeko kideen laguntzarekin batera —Euskal Herrian zuzenbide pribatuaren arloko adituak eta eragile nagusietako ordezkariak diren aldetik—, eraman beharko da aurrera ikerketa, 13.c) artikuluaren arabera batzorde teknikoak egin behar duen lanaren bitartez; zehazki, “praktika zibil eta judizialaren eraginaren eta errealitatearen gaineko datu estatistikoak bilduz, Euskal Estatistika Erakundearen eta antzeko erakundeen laguntzarekin, bai eta notarioen estatistiken eta estatistiketarako eta analisiak egiteko Justizia Administrazioak eta Botere Judizialak dituen tresna eta baliabideen laguntzarekin”.

Ekimen hori zehaztu eta garatzera etorri zen, planteatutako irismenari eta metodologiari dagokienez, eratzeko saio horretan bertan mahaikide guztiei eskura eman zitzaien dokumentu bat (posta elektronikoz ere bidali zitzaien), abiapuntuko galdetegi bat planteatuta, haien ekarpenak sustatze aldera. Horrela, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak ebaluazioaren xederako lehen hurbilketa bat egin ondoren, abiapuntu gisa, Idazkaritza Nagusiak lehen galdetegi bat prestatu zuen, 20 atalez osatua, Euskal Zuzenbide Zibilarekin zerikusia izan dezaketen eremu guztien berrikuspen orokorra egiteko, ebaluazio horren oinarri izango diren iturriak edo datuak identifikatzen saiatzeko. Bertan adierazi zutenez, Batzordearen, eta, zehazki, haren osoko bilkuraren eginkizuna izaki “indarrean dagoen zuzenbidea sistematikoki aztertu eta berrikustea, barne hartuta, idatzizko arauez gain, ohiturazko zuzenbidea eta Euskal Zuzenbide Zibilaren jatorrian dauden printzipio orokorretatik datorrena jakinaraztea eta hedatzea, zuzenbide horren aplikazioa errazteko eta haren garapenaren euskarri izan beharko diren oinarriak eta konexio-puntuak ezartzeko xedez” (9.f. artikulua).

"..., ikerketa hori gauzatu beharko da batzorde teknikoak 13.c) artikuluaren arabera garatu beharreko lanaren bitartez, hots, “praktika zibil eta judizialaren eraginaren eta errealitatearen gaineko datu estatistikoak bilduz, Euskal Estatistika Erakundearen eta antzeko erakundeen laguntzarekin, bai eta notarioen estatistiken eta

estatistiketarako eta analisiak egiteko Justizia Administrazioak eta Botere Judizialak dituen tresna eta baliabideen laguntzarekin".

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea (aurrerantzean, EZZL) indarrean jarri eta ia bi urtera, badirudi une egokia dela zeregin horri ekiteko, zehatzago ezagutzeko bai haren eragina, bai euskal zuzenbide zibilaren barruan edo harekin lotuta gertatu diren gainerako ekimen eta lege-aldaketena".

Horrez gain, hau ere badio:

"... Hori dela eta, aztertu beharra dago zer lotura dagoen EZZLren arrastoan sortutako lege horien eta lehendik zeuden beste batzuen artean, euskal zuzenbide zibil berria eratzerakoan barne-koherentzia eta arau-dentsitate gero eta handiagoa nagusituko badira".

Galdetegi hori banatu egin zitzaien lehendabizi, bai eta gero bidali ere, bere garaian Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Osoko Bilkura osatzen zuten kide guztiei. Borondatezkoa izan zen galdetegiari erantzutea. Lehen ekarpen horietan hainbat gai eta ikerketa-ildo zehaztu ziren, datuak hainbat iturritatik biltzen hasteko. Garrantzi berezia eman zitzaien jurisprudentzia-iturriei eta notario-iturriei —barnean direla Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak emandako ebazpenak (gaur egun, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusia). Foru-ogasunetako iturrien erabilgarritasuna ere aipatu zen, tributu-datuei zegokienez, edota erregistro juridikoak (Erregistro Zibila, Jabetza Erregistroa eta administrazio-erregistroak). Ebaluazio honetarako azken datu horiei dagokienez, kontuan hartuta, beste gogoeta batzuen artean, zerga-izaerako datuei zor zaien sekretu handiagoa edo irispide-zailtasun handiagoa, azkenean ez zitzaien eskatu foru-aldundietako foru-ogasunei hasiera batean identifikatu ziren oinordetza-zergari buruzko datu guztiak ematea, aztertutako aldiari buruzkoak, eta Eusko Jaurlaritzako zegokion Sailak (une hartan Ogasun eta Ekonomia Saila) eskura zituen datu erantsiak baino ez ziren erabili.

Bereziki, ez zen eskatu lurralde historiko bakoitzean, Bizkaiko hiribilduetan eta Arabako udalerrietan erroldatutakoen heriotzen edo dohaintzen xehakapenik, zeren eta jada lurralde historikoaren arabera xehakatuta eskura genituen errolda-datuek (EUSTATek eskuratuak) hurbilketa ez erabatekoa baina bai onargarria eskaintzen baitziguten orain arte lurralde historiko bakoitzeko foru-zuzenbidea aplikatu izan den eskualdeei buruz (batez ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako kasuan, nahiz eta diferentziak egon Arabako kasuan, non foru-zuzenbide propioa Aiaran soilik aplikatzen baitzen, gainerako lurraldea zuzenbide zibil erkidearen edo Bizkaiko foru-zuzenbide zibilaren aplikazio-eremu izanik).

Ez zen eskatu, ezta ere, sortutako zerga-egitate zehatzaren identifikazioa, oinordetza-instituzio bakoitza zenbateraino erabiltzen zen estrapolatzeko aukera eman zezakeena. Izan ere, ustea zen identifikazio horrek hau baino ez zuela argituko: une jakin batetik aurrera (adibidez, 5/2015 Legea indarrean jarriz geroztik) zergaren zenbat likidazio egin ziren urte berean edo aurreko urtean gertatutako delazioen ondorioz. Baina horrek ez du islatuko, nahitaez, lege berriaren aplikazioa, baizik eta, sarritan, legea indarrean jarri aurretik edo askoz lehenago egiletsitako testamentu-tresnen ondoreak soilik. Aitzitik, ebaluazio honen ondorioetarako, garrantzizkoago iritzi zaio, gertatutako delazioei buruzko informazioari baino, beste honi: ea urte horietan berorietan testamentua egiteko dauden pertsonek zenbateraino erabili dituzten tresna berri horiek. Informazio hori zerga-datuetan jasota egongo da pertsona bitarte horretan hil bada; bestela, ez da egongo. Informazio hori oinordetza-tresnak egilesteari eta erabiltzeari buruzkoa da, eta notario-estatistikaren bidez eskura daiteke, egoera errealera askoz hobeto egokituta eta une bakoitzean eguneratuta.

Hala eta guztiz ere, Batzordeko kideren batek bere erantzunetan ohartarazi duen moduan, kautelaz hartu behar dira EZZLk ekarritako instituzio berriak lehendik halakorik ez zuten lurraldeetan erabiltzeari buruzko datuak; izan ere, garai batean eduki hori aplikatzen ez zen lurralde horietan, haren erabilera aitortzeko egintza guztiek ezinbestean igoera bat agertuko dute lehenagoko garaiekin alderatuta. Behin hori azalduta, dokumentu honetan bilakaera hori jaso dugun arren, EZZLren erabilera handiagoa edo txikiagoa baloratu ahal izateko, komeniko litzateke, agian, gehiago itxarotea, urteko azterketa konparatiboak egin ahal izateko EZZL jada indarrean egon den antzeko epealdiekin, edo, bestela, jarraipen bat egitea, hasierako datuen inferentziak berresteko aukera emango lukeena (guk bigarren aukera hori gomendatzen dugu). Aurrekoari loturik, era berean, Batzordeko kideek ohartarazi zuten datu horiek ere erlatibizatu egin behar zirela, instituzioa berritzat duten lurraldeei dagokienez, kontuan hartuta lurralde horietako biztanleek (ustez) instituzio hori gutxiago ezagutzen dutela . Edonola ere, araua ezagutzeko eta betearazpen pedagogiko sozialerako zentzuzko epea igaro arte itxaron beharko litzateke. Hala, gizarteak araua ondo ezagutzen duenean, ezagutza zabal horretan oinarrituta balioetsi ahal izango dira haren aplikazioaren ondorioak.

Batzordeko kideek zuzenean egindako ekarpenen lehen txanda bildu ondoren, bigarren instantzia batean, gehiagori igorri zitzaien inkesta, eta galdetegia Euskal Zuzenbide Zibilari dagozkion edo zuzenbide horrekin zerikusia duten hainbat erregistro publiko eramateaz arduratzen diren Eusko Jaurlaritzako organoetara ere bidali zen (Izatezko Bikoteen Erregistroa, Fundazioen Erregistroa, Elkarteen Erregistroa).

Era berean, zenbait datu-base (notario-estatistikari buruzkoak[i], estatistika judizialari buruzkoak[ii]) edo irispide publikoko memoriak (bitartekaritza judizialeko zerbitzuaren estatistikak eta memoriak[iii], familia-bitartekaritzako zerbitzuaren urteko memoriak[iv]) kontsultatu ziren, eta, era berean, EUSTATi eskatu zitzaion laguntza, institutu horrek eskura izan zitzakeen edo bestela eskura zitzakeen datuei dagokienez.

Jakina denez, notario-indizeek erakusten dute notario bakoitzak eskuesten duen dokumentu bakoitza. Ildo horretatik, notario-indize bakarra, notario-estatistikaren iturri bakartzat hartuta, lehen mailako ebaluazio-tresna ematen digu oinordetzaren arloan. Linean eskuragarri dagoen estatistikaren arloko datu-basearen bidez, notario-egintzei buruzko estatistikak lor daitezke: instituzioak bereiz daitezke, baina definizio zabalagoak erabilita, eta, batzuetan (ez beti), lurralde-mailak ere iragazi daitezke (probintzia, lurralde historikoa, autonomia-erkidegoa; edo estatu-maila baino ez, beste batzuetan); eta denboraldiak eta datak ere bereiz daitezke (urtekoak, sei hilekoak, hiru hilekoak). Horri dagokionez, datu-basean zuzenean eskuratu ezin diren datuak edo banakapenak zabaldu egin ziren, eskuragarri zeuden neurrian, Euskadiko Notario Elkargoaren laguntzarekin.

Zuzenean eskuratzeko moduko iturrietako datuak egiaztatu ondoren, euskal zuzenbide zibila aplikatzeko jurisprudentzia bilatzeari ekin zitzaion, zuzenbide horrek egoitza judizialetan izan duen aplikazioari buruzko datu errealak lortze aldera.

Hainbat aukera aztertu ondoren jurisprudentzia-zerrenda hori egiteko, zeinak, onenean ere, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako organo judizialek euskal zuzenbide zibilaren arloan emandako epai guztiak jasoko zituen, erabakia izan zen zuzenean jotzea Dokumentazio Judizialeko Zentroaren (CENDOJ) datu-basean bilaketa sakonak egitera, jurisprudentzia-iturri publiko nagusia den aldetik, epai hauek guztiak kontuan hartuta: 2015eko urriaren 3tik (5/2015 Legea indarrean jarri zen eguna) 2018ko abenduaren 31ra (azterlanaren zati hau itxi zen eguna) bitartean emandakoak.

Aurrekoa, 2015-2018 aldiari dagokionez, 2015eko urriaren 3tik aurrera egin zen, abiapuntutzat hartuta 5/2015 Legearen 2. artikuluak "jurisprudentziari" eman dion definizioa: «*Euskal Zuzenbide Zibilaren ondoreetarako, jurisprudentziatzat ulertuko da Euskal Herrian jurisdikzioa duten epaile eta auzitegiek zuzenbide horren aplikazioan emandako ebazpen arrazoituek behin eta berriro ezartzen duten doktrina*», doktrina bateratzeko eginkizuna Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Arlo Zibileko Salarentzat gordeta.

Hala ere, euskal zuzenbide zibilaren bilakaera aztertzeko, izaera dinamikoa duenez, aurreko jurisprudentzia ere aztertu behar da erkatze- edo konparazio-puntu gisa, aldaketei antzemango bazaie; horrenbestez, 2015eko urriaren 3a baino lehenagoko jurisprudentzia aurkitzeko ahalegina ere egin zen, hori hartu baitzen konparazio-terminotzat. Ildo horretatik, 1992ko azaroaren 7tik —egun horretan jarri zen indarrean 3/1992 Legea— 2015eko urriaren 9ra —EZZL indarrean jarri aurreko eguna— bitarteko data duten eta euskal zuzenbide zibileko arauak aipatzen dituzten epaiak aztertu ziren.

Azken kasu horretan, 1992ko azaroaren 7tik 2015eko urriaren 2ra arteko aldirako, epaiak jurisprudentzia-bilduman sartzeko ala ez sartzeko, kontuan hartu da, bereziki, 3/1992 Legeak[v], euskal zuzenbide zibilaren ondoreetarako, zer definizio eman dion jurisprudentziari, eta epai eta auto hauek baino ez dira zerrendatu: Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko Salak emandakoak, foru-zuzenbide zibila interpretatu edo aplikatu dituztenak, aurreko paragrafoan adierazitakoaren ildotik. Dena den, hauek ere zenbatu behar izan ziren (konparazioa egiteko soilik, eta landutako "jurisprudentzia"-zerrendan sartu gabe, bilduman sartzeko zerrenda osorik egin gabe): EAEAN-Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaz bestelako epaile eta auzitegi batzuek emandako epaiak eta ebazpenak ere zenbatu behar izan ziren, EZZL indarrean jarri aurreko aldi horretarako.

Batzordeko kideei zabaldu ondoren ebaluazio-txosten horren lehen zirriborroa (Batzorde Teknikoak egina, goian adierazitakoaren ildotik), hainbat ekarpen eta iruzkin jaso ziren, Batzordeko kideek eginak.

Horrekin guztiarekin, bigarren zirriborro bat egin zen, eta Batzordearen osoko bilkurari aurkeztu zitzaion, 2019ko abenduaren 19ko saioan.

Egindako lan guztiari buruzko harrera ona eta balorazio positiboa alde batera utzi gabe, oraindik egiteko zeuden zereginen kopurua ikusita, bai eta saio horretan bertan nabarmendu ziren zenbait alderdi osatzeko beharra ere, erabaki zen berriz ere lantalde espezifiko bat sortzea, mistoa, batzordekide boluntarioek eta Batzorde Teknikoko langileek osatua, azken ebaluazio-dokumentu bat adosten amaitzeko.

Lantalde hori eratu, eta hainbat hilabetez aritu zen lanean, eta, besteak beste, hauetarako bidea eman zuen:

- Ebaluazioaren xedeko epemuga zabaltzea, 2018 osoa abenduaren 31ra arte sartzeko, data horretara arteko datu estatistiko eta jurisprudentzial guztiak osatuta eta eguneratuta.
- Erabilitako notario-datu estatistikoak eta estatistika publikoari buruzkoak (EUSTAT eta erregistro publikoak) zabaltzea, barnean hartuta hasiera batean lurraldeka banakatu ez zirelako edo ondoren analisi-lanetatik sortu zirelako kanpoan utzi ziren alderdiak ere.
- Erregistro publikoek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek emandako datuak eguneratzea, lehendik ere bazeudenak, 2017an lanak hasi zirenean jaso ez ziren datu batzuk barne.

- Beste administrazio publiko batzuei eta, bereziki, foru-administrazioei eta haien haurtzaroko eta gizarte-laguntzako zerbitzuei zuzendutako informazio-eskaerak errepikatzea, informazioa jasotzeko haietatik;
- Sakonago aztertzea Europako araudiak euskal zuzenbide zibilaren sektore edo adarretan duen eragina, eta beharrezkoak izan daitezkeen egokitzapenak kontuan hartzea;
- Jurisprudentziak eta Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak euskal zuzenbide zibila osatzen duten erakunde nagusien inguruan emandako erabaki garrantzitsuenen analisi "kualitatiboa" osatzea.

Azpimarratzekoa da, halaber, une hartan eskuragarri zeuden informazio-iturri batzuen mugak agerian geratu zirela ikerketa-lanetan, datu estatistikoak lortzeko lanetan eta egindako analisietan, bai lurraldeka ez banatzeagatik (kasu batzuetan), bai zehaztasunik ez izateagatik benetan lortu nahi den datuari dagokionez (beste kasu batzuetan), egintza batzuk batera kontabilizatu direlako beste egintza desberdin batzuekin, bereizezin bihurtzeraino; hau da, azkenik, kasuan kasuko erakundeek (EUSTAT, notario-estatistika, erregistro publikoak edo administrazio-zerbitzuen memoriak) orain arte bildu dituzten datu batzuk egokitu ez direlako, euskal zuzenbide zibilaren berezitasun eta erakunde propio eta espezifikoei dagokienez.

Hori, kasu bakoitzean, baliagarria izan da datuak biltzeko modua, biltzen diren datu zehatzak edo kontabilizatu behar diren modua egokitzeko prozesuak abian jartzeko, etorkizuneko ebaluazio-lanek har ditzaketen iturriak mugatzen eta hobetzen joateko, esku artean dugun lanak hasitako bideari jarraipena emateko moduan.

Honekin batera doazen estatistiken azalpenetan, alde batetik, iturrien identifikazioari dagozkionak ageri dira, eta, hain agerikoa ez den kasuetan, euskal zuzenbide zibileko arauekiko harremana edo estatistikatik lortu nahi zen informazio gutxi-asko egokia; bestetik, azalpen tekniko batzuk, kasu bakoitzean kontabilizatzen denaren edukia edo esanahia behar bezala identifikatzen laguntzen dutenak. Notario-estatistiken kasuan, adibidez, oso erabilgarria izan da Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren Aurkibide Informatizatu Bakarra dokumentua (*Índice Único Informatizado*). I. eranskina – Egintza juridikoak (2019ko abenduaren 18ko 3.1 bertsioa), Ziurtapeneko Notario Agentziak egina. Indize Bakar Informatizatuetan jasotako egintza juridiko bakoitzari buruzko informazioa ematea du helburu, haien erabilera zer kasutan aplikatzen den identifikatu ahal izateko.

Zeregin horiek guztiak amaituta, ondorio gisa, bi dokumentu egin ziren, helburu desberdinekin: alde batetik, espektro zabaleko azterketa zuen dokumentu osoaren hirugarren zirriborro bat (zuzenbide pribatuari lotutako edukia izan zezaketen lege autonomiko guztiei irekia), eta, bestetik, laburpen-dokumentu bat (EAEko lege zibil nagusiek osatutako muinera mugatua). Dokumentu horiek batera aurkeztu zitzaizkion, berriz ere, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen 2021eko ekainaren 30eko osoko bilkurari, zeinak azken onarpena eman baitzien, eta Batzordearen azken emaitza eta dokumentutzat berretsi baitzituen.

Bi dokumentu horiek, beraz, elkarrekin osatzen dute 2015-2018 aldirako "EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN EGOERAREN EBALUAZIOA" esan diezaiokegun lehen lana.

Gure esperantza da lan hori aitzindaria izatea beste askorentzat, aldian-aldian jarraipena eman beharko liokete eta, txosten honetan aipatzen diren dinamiken edo sor daitezkeen beste batzuen irudi zehatzagoa eta fidagarriagoa lortzeko.

II. Taula estatistikoak.

A. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN APLIKAZIOAREN EBALUAZIO OROKORRA

A.1 Arlo zibileko epaileek eta auzitegiek edo euskal zuzenbide zibilaren arauak aplikatzen dituztenek emandako ebazpen judizialak, organo judizialaren arabera banatuta

Arlo zibileko epaileek eta auzitegiek edo euskal zuzenbide zibilaren arauak aplikatzen dituztenek emandako ebazpen judizialak, organo judizialaren arabera banatuta.

(Iturria: geuk egindako estatistika, oinarritzat hartuta CENDOJeko jurisprudentzia-datu-basetik ateratako jurisprudentzia-bilduma, eranskin honetan sartua).

1992-11-07tik 2015-10-02ra			2015-10-05etik 2018-12-31ra			
Justizia Auzitegi Nagusia (Arlo Zibileko Sala)	31		Justizia Auzitegi Nagusia (Arlo Zibileko Sala)			17
Beste batzuk	442		Beste batzuk	Justizia Auzitegi Nagusia (Administrazioarekiko Auzien Sala)		16
				Justizia Auzitegi Nagusia (Lan-arloko Sala)	444	7
				Bizkaiko Probintzia Auzitegia		256
				Gipuzkoako Probintzia Auzitegia		96
				Arabako Probintzia Auzitegia		66
				Epaitegiak (Merkataritza-arlokoak)		3

A.2 Arlo zibileko epaileek eta auzitegiek edo euskal zuzenbide zibilaren arauak aplikatzen dituztenek emandako ebazpen judizialak, kontuan hartuta arloak eta aipatutako arauak

Arlo zibileko epaileek eta auzitegiek edo euskal zuzenbide zibilaren arauak aplikatzen dituztenek emandako ebazpen judizialak[1], kontuan hartuta arloak eta aipatutako arauak

(Iturria: Geuk egindako estatistika, oinarritzat hartuta CENDOJeko jurisprudentzia-datu-basetik ateratako jurisprudentzia-bilduma, eranskin honetan sartua).

1992-11-07tik 2015-10-02ra			2015-10-05etik 2018-12-31ra	
Zibil orokorra eta oinordetzak	% 45,91		Zibil orokorra eta oinordetzak	% 9,51
Lurzorua	% 10,56		Lurzorua	% 1,06
Kooperatibak	% 9,05		Kooperatibak	% 23,04
Fundazioak	% 1,08		Fundazioak	% 0
Elkarteak	% 5,17		Elkarteak	% 0,63
Izatezko bikoteak	% 11,21		Izatezko bikoteak	% 5,29
Haurrak	% 12,28		Haurrak	% 4,65
Familia bitartekaritza	% 4,74		Familia bitartekaritza	% 0,21
			Bizitzaren amaiera	% 0
			Etxebizitza	% 0,21
			Gurasoen hausturak	% 55,39

A.3 Aldatzeko, argitzeko edo zuzentzeko eskritura / Ongitze-akta

Aldatzeko, argitzeko edo zuzentzeko eskritura / Ongitze-akta

[1] Egin-eginean ere, euskal zuzenbide zibileko arauen “aplikazioak” aipatu beharko genituzke, “ebazpenak” baino zehatzago, zentzu hertsian; izan ere, ez dago modurik epai berean jasotako erabakiak bereizteko, zenbaketa honi begira, ebazpen berak kategoria horietako batean baino gehiagotan sartzen ziren gaiak jorratzen zituenean, eta, beraz, erabaki horietako bakoitza aplikazio edo ebazpen independente bat balitz bezala kontabilizatu dugu. Aurrerago ohartarazi dugunez, eranskinean jasotako eta hemen zenbatutako epaietan 12 aldiz gertatzen da hori.

(Iturria: Notario-estatistika. 10. multzoa - Beste egintza eta kontratu batzuk 1007 - Aldatzeko, argitzeko edo zuzentzeko eskritura / Ongitze-akta)

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	160275	-% 8,30	2528	-% 16,65	1480	+% 5,07	982	+% 7,13
2008	146968	-% 15,84	2107	-% 6,31	1555	-% 13,25	1052	+% 2,28
2009	123690	-% 10,00	1974	-% 9,98	1349	-% 17,72	1076	-% 9,01
2010	111321	-% 11,96	1777	+% 0,39	1110	-% 8,29	979	-% 0,92
2011	98012	-% 11,57	1784	-% 12,00	1018	-% 7,27	970	-% 7,32
2012	86671	+% 10,62	1570	+% 6,56	944	-% 1,27	899	+% 3,23
2013	95877	-% 15,73	1673	-% 19,96	932	-% 9,76	928	-% 22,84
2014	80793	-% 4,69	1339	-% 1,79	841	-% 2,26	716	-% 7,96
2015	77007	+% 9,11	1315	+% 7,98	822	+% 0,97	659	+% 16,39
2016	84026	-% 4,57	1420	-% 21,41	830	-% 2,17	767	-% 9,65
2017	80194	-% 8,30	1116	-% 16,65	812	+% 5,07	700	+% 7,13
2018	78695		1088		777		511	

B. ZUZENBIDE ZIBIL OROKORRA

B.I.- Euskal auzotasun zibila eta tokiko auzotasun zibila Toc62733036

B.1 2016ko urtarrilaren 1eko biztanleria, udalerriaren eta entitatearen arabera, bizileku-denboraren arabera

2016ko urtarrilaren 1eko biztanleria, lurralde historikoaren eta bizileku-denboraren arabera
(Iturria: Eustat. Biztanleen Udal Estatistika, 2016-1-1 Biztanleen udal estatistika urtero eguneratzen da, urtarrilaren 1ean. Ebaluazio honen ondorioetarako, 2016koari iritzi zaio adierazgarriena, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legea indarrean jarri zen datatik —2015eko urriaren 2a— hurbilen dagoelako)

	10 urtetik gorako bizilekua	2 urtetik gorako eta 10 urtetik beherako bizilekua	2 urtetik gorako bizilekua
EAE	1505945	428405	1934350
Araba	223114	65605	288719
Bizkaia	788894	225407	1014301
Gipuzkoa	493937	137393	631330

B.2 2016ko urtarrilaren 1eko biztanleria, udalerriaren eta entitatearen arabera, lehenago aplikatzen zen auzotasun zibilaren arabera eta bizileku-denboraren arabera

2016ko urtarrilaren 1eko biztanleria, udalerriaren eta entitatearen arabera, lehenago aplikatzen zen auzotasun zibilaren arabera eta bizileku-denboraren arabera.
(Iturria: Eustat. Biztanleen Udal Estatistika, 2016-1-1)

	Udalerria edo entitatea	10 urtetik gorako bizilekua	2 urtetik gorako eta 10 urtetik beherako bizilekua	2 urtetik gorako bizilekua
Bizkaiko auzotasun-eremua, zeinean, 5/2015 Legea indarrean sartzen denetik, euskal auzotasun zibila eskuratzen den Bizkaiko toki-auzotasunarekin	Bizkaiko lur laua	425748	135084	560832
	Aramaio	1079	339	1418
	Laudio	13773	3102	16875
	EUSKAL AUZOTASUN ZIBILA BIZKAIKO TOKI-AUZOTASUNAREKIN, GUZTIRA	440600	138525	579125
Aiarako auzotasun-eremua, zeinean, 5/2015 Legea indarrean sartzen denetik, euskal auzotasun zibila eskuratzen den Aiarako toki-auzotasunarekin	Aiara	1603	950	2553
	Okondo	643	372	1015
	Amurrio	7023	2125	9148
	Mendieta (Artziniega)	5	1	6
	Erretes Tudela (Artziniega)	24	5	29
	Santa Koloma (Artziniega)	11	5	16

	Soxoguti (Artziniega)	28	3	31
	EUSKAL AUZOTASUN ZIBILA AIARAKO TOKI-AUZOTASUNAREKIN	9337	3461	12798
Gipuzkoako auzotasun-eremua, zeinean, 5/2015 Legea indarrean sartzen denetik, euskal auzotasun zibila eskuratzen den Gipuzkoako toki-auzotasunarekin	Gipuzkoa	493937	137393	631330
	EUSKAL AUZOTASUN ZIBILA GIPUZKOAKO TOKI-AUZOTASUNAREKIN	493937	137393	631330
Auzotasun erkideko eremua, zeinean, 5/2015 Legea indarrean sartzen denetik, euskal auzotasun zibila eskuratzen den	Araba, zuzenbide erkideko eremua (Bizkaiko zuzenbideko udalerriak eta Aiarako zuzenbideko herriak kenduta)	198925	291193	257628
	Bermeo (Bizkaiko hiribildua)	12401	2824	15225
	Bilbo (Bizkaiko hiribildua)	246720	59719	306439
	Durango (Bizkaiko hiribildua)	19544	6417	25961
	Ermua (Bizkaiko hiribildua)	12382	2340	14722
	Gernika-Lumo (Bizkaiko hiribildua)	11100	3626	14726
	Lanestosa (Bizkaiko hiribildua)	152	76	228
	Lekeitio (Bizkaiko hiribildua)	5156	1414	6570
	Markina-Xemein (Bizkaiko hiribildua)	3179	1166	4345
	Otxandio (Bizkaiko hiribildua)	756	366	1122
	Ondarroa (Bizkaiko hiribildua)	6573	1305	7878
	Urduña (Bizkaiko hiria)	2828	883	3711
	Plentzia (Bizkaiko hiribildua)	2340	1327	3667

	Portugalete	34937	7241	42178
	Balmaseda	5078	1619	6697
	EUSKAL AUZOTASUN ZIBILA, TOKIKO AUZOTASUNIK GABE	562071	381516	711097

C. OINORDETZA-ZUZENBIDEA

C.I.- Oinordetza-fenomenoa, oro har

C.1 EAEko heriotzak, lurralde historikoaren eta aldiaren arabera

EAEko heriotzak, lurralde historikoaren eta aldiaren arabera (Iturria: EUSTAT)							
Urtea	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**	**2016**	**2017**	**2018**
Araba	2521	2579	2477	2767	2688	2813	2763
Bizkaia	11246	10728	11155	11810	11759	11813	11950
Gipuzkoa	6514	6385	6525	6932	6776	7006	7032
Euskal Autonomia Erkidegoa	**20281**	**19692**	**20157**	**21509**	**21223**	**21632**	**21745**

C.2 Foru-aldundien diru-bilketa, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga dela eta

Foru-aldundien diru-bilketa, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga dela eta (milaka eurotan) (Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailaren datuak)							
Urtea	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**	**2016**	**2017**	**2018**
Araba	11362	11831	18032	13082	11235	9913	12979
Bizkaia	42869	55741	60213	60418	57937	61188	63869
Gipuzkoa	35300	37844	34113	40188	41806	46810	55231
Euskal Autonomia Erkidegoa	89531	105416	112358	113688	110978	117911	132079

C.II.- Oinordetza-tituluak, oro har

C.3 Oinordetza-tituluen ehuneko erlatiboa

Oinordetza-tituluen ehuneko erlatiboa
(Iturria: Notario-estatistika)

Urtea	**Testamentuak** (0201 Pertsona bakarreko testamentu irekiak +0202 Testamentu mankomunatuak edo ermandadeko testamentu irekiak +0203 Testamentu itxia eta testamentu olografoa edo parrokiala protokoloan jasotzea +0204 Bestelako testamentuak edo azken nahietako egintzak)		**Oinordetza-itunak** (0207 Oinordetza-kontratuak ondasunak unean bertan eskualdatuz +0206 Oinordetza-kontratuak, ondasun-eskualdaketarik gabe)		**Jaraunsleei buruzko adierazpen-aktak** (1630 - Abintestato jaraunsleentzako nabaritasun-adierazpena)	
	ESTATUA	EUSKADI	ESTATUA	EUSKADI	ESTATUA	EUSKADI
2011	572608 (% 90,1)	32458 (% 94,1)	7760 (% 1,2)	49 (% 0,1)	55313 (% 8,7)	1984 (% 5,8)
2012	583056 (% 89,7)	31686 (% 94,4)	7440 (% 1,1)	63 (% 0,2)	59170 (% 9,1)	1805 (% 5,4)
2013	594933 (% 89,3)	32047 (% 94,2)	7390 (% 1,1)	50 (% 0,1)	63581 (% 9,5)	1913 (% 5,6)
2014	609682 (% 89,2)	32430 (% 94,0)	7945 (% 1,2)	37 (% 0,1)	65980 (% 9,7)	2020 (% 5,9)
2015	626255 (% 88,4)	32927 (% 93,4)	8609 (% 1,2)	66 (% 0,2)	73567 (% 10,4)	2256 (% 6,4)
2016	627821 (% 86,6)	38420 (% 92,9)	17355 (% 2,4)	202 (% 0,5)	79828 (% 11,0)	2740 (% 6,6)
2017	653003 (% 86,4)	40294 (% 92,4)	19240 (% 2,5)	428 (% 1,0)	83841 (% 11,1)	2895 (% 6,6)

C.4 Pertsona bakarreko testamentu irekiak

Pertsona bakarreko testamentu irekiak (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 02 multzoa - Testamentuak eta azken nahiaren xedapenak. 0201 Pertsona bakarreko testamentu irekiak. Testamentugile bakar batek notarioaren aurrean egindako testamentu irekian aktibatu behar da. Kodiziloak ere sartzen dira, halakoak onartzen dituzten foru-araudietan).

	ESTATUA		**BIZKAIA**		**GIPUZKOA**		**ARABA**	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2008		-% 3,24	16427	+% 1,15	9994	+% 1,85	4433	+% 4,33
2009		-% 0,80	15965	-% 2,81	9795	-% 1,99	4521	+% 1,99
2010		+% 1,72	16288	+% 2,02	10490	+% 7,10	4595	+% 1,64
2011	561765	+% 0,57	16825	+% 3,30	10344	-% 1,39	4561	-% 0,74
2012	572461	+% 1,90	16370	-% 2,70	10216	-% 1,24	4357	-% 4,47
2013	583639	+% 1,95	16111	-% 1,58	10213	-% 0,03	4603	+% 5,65
2014	597985	+% 2,46	16342	+% 1,43	10526	+% 3,06	4428	-% 3,80
2015	614839	+% 2,82	15936	-% 2,48	11071	+% 5,18	4499	+% 1,60
2016	615822	+% 0,16	18154	+% 13,92	13149	+% 18,77	5023	+% 11,65
2017	640381	+% 3,96	19399	+% 6,86	13186	+% 0,28	5400	+% 7,51
2018	634872		18571		12752		5120	

C.5 Testamentu mankomunatu edo ermandadeko testamentu irekiak

Testamentu mankomunatu edo ermandadeko testamentu irekiak (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 02 multzoa - Testamentuak eta azken nahiaren xedapenak. 0202 Testamentu mankomunatu edo ermandadeko testamentu irekiak. Aktibatu behar da notarioaren aurreko testamentu irekietan, bi pertsonak edo gehiagok egilesten dituztenean modalitate hori onartzen duten foru-araudien arabera)

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2008	7929	-% 4,44	29		0		3	
2009	7884	-% 0,57	32	+10,34	9	+900,00	0	-100,00
2010	8220	+% 4,26	34	+6,25	29	+222,22	3	+300,00
2011	7835	-% 4,68	28	-17,65	10	-65,52	2	-33,33
2012	7763	-% 0,92	41	+46,43	9	-10,00	5	+150,00
2013	8187	+% 5,46	44	+7,32	4	-55,56	3	-40,00
2014	8493	+% 3,74	43	-2,27	5	+25,00	2	-33,33
2015	7898	-% 7,01	42	-2,33	24	+380,00	10	+400,00
2016	7916	+% 0,23	51	+21,43	111	+362,50	24	+140,00
2017	8536	+% 7,83	66	+29,41	139	+25,23	14	-41,67
2018	8055							

C.6 Testamentu itxia eta testamentu olografoen edo parrokia-testamentuen protokolizazioa

Testamentu itxia eta testamentu olografoen edo parrokia-testamentuen protokolizazioa (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 02 multzoa - Testamentuak eta azken nahiaren xedapenak 0203 Testamentu itxia eta testamentu olografoaren edo parrokia-testamentuaren protokolizazioa. Kasu hauetan aktibatu behar da: testamentu itxiak egitean, pertsona bakarrekoak edo pertsona batzuenak (beraz, baita mankomunatuak edo ermandadekoak direnean ere), bai eta testamentu olografoak, testamentu-memoriak edo parrokia-testamentuak edo ahozko testamentuak (kasu honetan, hilburuko testamentua barne) protokolizatzean ere , berdin dio testamentugileak berak edo haren jaraunsleek egiten duten. Ez da nahastu behar testamentu itxiaren irekiera-aktekin, Kataluniako legeriaren arabera edo haiek aurreikusten dituzten beste legeria batzuen arabera; akta horiek bertaratze-akten izaera izango dute. Egintza honetan sartzen dira testamentu horiek aurkeztea eta egiaztaraztea, irekitzea eta protokolizatzea).

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2008	503	-% 19,00	4		0		1	

2009	360	-% 28,43	8	+100,00	6	+600,00	1	+0,00
2010	378	+% 5,00	7	-12,50	7	+16,67	2	+100,00
2011	313	-% 17,20	6	-14,29	5	-28,57	0	-100,00
2012	348	+% 11,18	6	+0,00	10	+100,00	2	+200,00
2013	261	-% 25,00	8	+33,33	3	-70,00	3	+50,00
2014	267	+% 2,30	6	-25,00	2	-33,33	1	-66,67
2015	349	+% 30,71	3	-50,00	8	+300,00	1	+0,00
2016	401	+% 14,90	9	+200,00	9	+12,50	4	+300,00
2017	388	-% 3,24	10	+11,11	10	+11,11	4	+0,00
2018	369							

C.7 Bestelako testamentu edo azken nahietako egintzak

Bestelako testamentu mota batzuk edo azken nahietako egintzak (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 02 multzoa - Testamentuak eta azken nahiaren xedapenak 0204 Beste testamentu edo azken nahietako egintza batzuk. Hondar-kodea, notarioaren aurrean dokumentatutako azken nahietako egintza guztietarako, aurreko hiru kodeetan aurreikusi ez direnetarako. Kasu honetan, Euskadin, komisario bidezko testamentuari buruzko egintzak sartzen dira. Ez da nahastu behar 0205 kodearekin (oinordetza-garrantzia duten beste egintza batzuk); bertan, etorkizuneko oinordetza-fenomenoaren osagarri diren *inter vivos* egintzak zenbatzen dira, gehiago: Dohaintzan emandako ondasunen kolazioa agintzen duten dokumentuak, edo kolazionatzeko betebeharrik eza zehazten dutenak. Ezta 103 kodearekin ere, "Aurretiazko borondateak", 01 multzoa - Familia-egintzak eta egintza pertsonalak).

	ESTATUA		**BIZKAIA**		**GIPUZKOA**		**ARABA**	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2008	2417	-% 27,98	767		0		3	
2009	2812	+% 16,34	674	-12,13	48	+4800,00	4	+33,33
2010	2460	-% 12,52	542	-19,58	17	-64,58	6	+50,00
2011	2695	+% 9,55	647	+19,37	26	+52,94	4	-33,33
2012	2484	-% 7,83	644	-0,46	24	-7,69	2	-50,00

2013	2846	+% 14,57	1.028	+59,63	25	+4,17	2	+0,00
2014	2937	+% 3,20	1.042	+1,36	30	+20,00	3	+50,00
2015	3169	+% 7,90	1.249	+19,87	79	+163,33	5	+66,67
2016	3682	+% 16,19	1.597	+27,86	196	+148,10	93	+1760,00
2017	3698	+% 0,43	1.631	+2,13	323	+64,80	112	+20,43
2018	3733							

C.IV.- Oinordetza-itunak_Toc62733050

C.8 Oinordetza-kontratuak, ondasun-eskualdaketarik gabe

Oinordetza-kontratuak, ondasun-eskualdaketarik gabe (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 02 multzoa - Testamentuak eta azken nahiaren xedapenak. 0206 Oinordetza-kontratuak, ondasun-eskualdaketarik gabe. Kontzeptu honen barrukotzat joko dira Kode Zibilaren 1.056-2 artikuluak aurreikusitako bizien arteko ondasun-banaketa, nekazari gazteen ustiategiei buruzko itunak eta bizien arteko gainerako oinordetza-kontratu erkideak eta foralak, barnean hartuta, gure kasuan, ondasun-eskualdaketarik gabeko oinordetza-itunak).

	ESTATUA		**BIZKAIA**		**GIPUZKOA**		**ARABA**	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2008	886	+% 96,45	1		0		0	
2009	342	-% 61,40	1	0,00	1	100,00	0	0,00
2010	452	+% 32,16	1	0,00	0	-100,00	0	0,00
2011	572	+% 26,55	2	100,00	0	0,00	0	0,00
2012	693	+% 21,15	6	200,00	0	0,00	0	0,00
2013	743	+% 7,22	3	-50,00	0	0,00	0	0,00
2014	830	+% 11,71	2	-33,33	0	0,00	0	0,00
2015	900	+% 8,43	8	300,00	9	900,00	1	100,00
2016	1073	+% 19,22	10	25,00	38	322,22	6	500,00
2017	1243	+% 15,84	45	350,00	43	13,16	14	133,33

2018	1330							

C.9 Oinordetza-kontratuak ondasunak unean bertan eskualdatuz

Oinordetza-kontratuak ondasunak unean bertan eskualdatuz (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 02 multzoa - Testamentuak eta azken nahiaren xedapenak. 0207 Oinordetza-kontratuak ondasunak unean bertan eskualdatuz. Aktibatu behar da edozein foru-legek onartutako oinordetza-kontratuetan, baldin eta benetako ondasun-eskualdaketa gertatzen bada, eskualdatzailearen heriotzaren baldintzaren pean ez dagoena edo haren heriotza arte atzeratua ez dagoena)

	ESTATUA		**BIZKAIA**		**GIPUZKOA**		**ARABA**	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2008	4543	+% 8,04	3		0		2	
2009	6657	+% 46,53	19	533,33	1	100,00	1	-50,00
2010	7099	+% 6,64	24	26,32	0	-100,00	0	-100,00
2011	7188	+% 1,25	47	95,83	0	0,00	0	0,00
2012	6747	-% 6,14	56	19,15	0	0,00	1	100,00
2013	6647	-% 1,48	46	-17,86	1	100,00	0	-100,00
2014	7115	+% 7,04	35	-23,91	0	-100,00	0	0,00
2015	7709	+% 8,35	43	22,86	0	0,00	5	500,00
2016	16282	+% 111,21	55	27,91	46	4600,00	47	840,00
2017	17997	+% 15,84	166	201,82	90	95,65	70	48,94
2018	21574							

C.V.- Oinordetza-erreserbak eta itzulketak. Tronkalitatea oinordetzan. Gipuzkoako baserriaren oinordetza-antolamendua.

C.10 Oinordetza-tituluen bidezko adjudikazioa, ezkontza-erkidegoaren likidazioarekin edo gabe

Oinordetza-tituluen bidezko adjudikazioa, ezkontza-erkidegoaren likidazioarekin edo gabe. (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 11. multzoa – Jaraunspenak. 1103 Oinordetza-tituluen bidezko adjudikazioa, ezkontza-erkidegoaren likidazioarekin edo gabe. Aktibatu behar da jaraunspen-eskualdaketa kasu guztietan, dela titulu unibertsalaren bidez —jaraunspena—, dela banakako tituluaren bidez —legatua—, bai eta beste edozein kasutan ere, baldin eta ondasunak eta eskubideak pertsona baten heriotzaren ondorioz eskualdatzen badira, hildakoaren eta beste baten artean. Taula hau sartzearen oinarrian dagoen asmoa da nolabait kontabilizatzea Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legearen 118. artikulutik 120. artikulura aipatzen diren oinordetza-erreserbei eta itzulketei buruzko egintzak, edo oinordetza tronkaleko kasuei buruzkoak, edo Gipuzkoako baserriaren babes-sistemari buruzkoak, epigrafe honetan kontabilizatuta Notario Indize Bakarraren eskuliburuaren arabera. Hala ere, onartu behar da datuaren erabilgarritasuna benetan mugatua dela, mota horretako adjudikazioak egintzen multzo heterogeneo baten barruan kontabilizatzen baitira, eta horrek eragotzi egiten baitu lortu nahi den datuari dagozkionak minimoki bereiztea. Eskuliburu horren azalpenen arabera, kode honen barrukotzat hartu behar dira, denak aipatzeko asmorik gabe: -Testamentuzko jarauntsia azaltzea eta adjudikatzea. -Testamenturik gabeko jarauntsia azaltzea eta adjudikatzea. -Jarauntsiari gehitzea (lotutako eragiketaren kodea adierazita) - Legatua emateko eskritura. -Legatu-autoedukitzaren eskritura. -Senipartea ordaintzeko eskritura. -Mortis causa dohaintza, dohaintza-emailearen heriotzak eragindakoa - Heriotzaren ondoriozko eskuratzea, itzulketa edo baldintza suntsiarazlea betetzea direla eta. -Oinordetza-fiduzia *inter vivos* betearaztea. -Ordezpen arruntaren bidezko jarauntsia. -Onbidezko ordezpenaren edo zurtz-ordezpenaren bitartezko jarauntsia. -Ordezkapen-eskubidearen bidezko adjudikazioa. *-Kode Zibilaren 811. artikuluaren oinordetza tronkala eta bestelako foru-oinordetza tronkalak.* -Abolorio-ondasunen oinordetza. *-Alargunaren erreserbaren ondoriozko oinordetza berezia*. -Oinordetza berezia, muiños de herdeiros. -Eskualdatze-eskubidez eskuratzea. -Oinordetza eta adjudikazioa laurden trebelianikoa dela eta. -Ondasunen adjudikazioa any de plor delakoaren ordainean. *-Bestelako oinordetza-deiak*. Kode honen ondoreetarako, ulertzen da egintza bakarra dagoela eskrituran dokumentatutako oinordetza bakoitzeko, hau da, hildako bakoitzeko, alde batera utzita onuradunen kopurua, hau da, jaraunsle bat edo gehiago diren. Eskritura berean kausatzaile bi edo gehiagoren oinordetza dokumentatzen bada, oinordetza bakoitzak kode independente bat sortuko du. Zehazki, eskualdatze-eskubidea tartean denean, hau da, jaraunsle bat hasierako kausatzailearen heriotza eta gero hil denean jaraunspena adjudikatu gabe, bi jarauntsi-eskualdaketa kontsignatuko dira: bat, hasierako kausatzailearen eta hildako oinordekoaren artekoa (azken hori, agertu gabeko egileslea), eta, beste bat, kausatzaile berri horren eta haren oinordekoaren edo oinordekoen artekoa. Salbuespen gisa hartzen da bi ezkontideen jarauntsia aldi berean adjudikatzen denean, ondasun erkideek bakarrik osatua; kasu horretan, jaraunsle erkideen aldeko adjudikazioek eragiketa bakarra hartuko dute, bi kausatzailerekin. Ezkontide baten edo bien ondasun pribatiboak ere tartekatzen badira, 1103 kodea sartu beharko da haietako bakoitzarentzat, eta ezkontide bakoitzaren jarauntsiari egotziko zaio batera likidatu beharreko irabazpidezko ondasunen erdi indibisoa. Hala eta guztiz ere, salbuespen gisa, dokumentuak eta izapidea sinplifikatzeko, eskritura batean ondasun beraren ondoz ondoko eskualdatze bi edo gehiago dokumentatzen direnean (Kode Zibilaren 1006. artikulua), zuzeneko eskualdaketa bakarra jaso ahal izango da, lehenengo kausatzailearen eta behin betiko esleipendunaren artekoa, eta "bitarteko kausatzaile" gisa identifikatuko da bere heriotzarekin eskualdatze-eskubidea aktibatu zuen jaraunslea edo legatu-hartzailea. Kasu hori ez da nahastu behar ordezpen arruntarekin edo kausatzailearen eta behin betiko oinordekoaren arteko zuzeneko delazioa dakarten beste batzuekin. Eragiketaren zenbatekotzat ulertzen da eragiketetan bildutako jarauntsiko ondasunen guztizko gordina, hau da, jarauntsiko aktiboa, jaraunskideen artean banatu gabea. Pasiboan subrogatzen bada, dagokion kodea ere aktibatuko da. Adjudikazio-gaindikinik bada, 807 kodea ere aktibatu beharko da. Oinordetza-eskualdaketa errenta edo pentsio bat eratzean badatza, "bestelako objektuak" epigrafearen barruan sartuko da, eta zenbatekoa zerga-oinarriaren arabera zehaztuko da (ikus 1020 kodeko laguntza-testua). Ondasun jakin bat indibisoan adjudikatzen zaienean ezkontideari eta jaraunsle bati edo batzuei ezkontza-sozietatearen likidazioaren eta jarauntsiaren bidez —biak batera—, adjudikazio guztiak —gozamena, jabetza soila edo jabari osoa— 1103 kode honetan sartuko dira, salbuespenez.)

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2008	263313		7194		4314		1903	
2009	248833		7177		4117		1712	
2010	265708		7275		4694		1808	
2011	265583		6928		5056		2131	
2012	274273		7234		4462		1827	
2013	267301		6928		4861		1938	
2014	275931		7155		4674		1889	
2015	292070		7784		5176		2077	
2016	293484		8886		5361		2197	
2017	308863		9640		5488		2213	
2018	325410		9872		5751		2341	

C.VI.- Abintestato jaraunsleen adierazpena_Toc62733059

C.11 Abintestato jaraunsleentzako nabaritasun-adierazpena

Abintestato jaraunsleentzako nabaritasun-adierazpena (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 16. multzoa – Aktak. 1630 - Abintestato jaraunsleentzako nabaritasun-adierazpena. Kodeak erreferentzia egiten die NEren 209 bis artikuluan araututako nabaritasun-aktei, baliozko testamenturik gabe hildako pertsona baten jaraunsleak nor diren zehazteko. Ez dira nahastu behar oinordetza-arloko beste nabaritasun-akta batzuekin, adibidez, aldez aurretik hildako jaraunsle edo legatu-hartzaile baten ordezpen arruntera deitutako ondorengoen izaera finkatzen dutenekin. Ez da nahastu behar nabaritasun-adierazpenaren aurreko errekerimenduarekin (1624 kodea), notario beraren aurrean egiten bada. Eskuduna ez den notarioaren aurreko aktak, eskaria notario eskudunari igortzekoak, errekerimendu-akta orokortzat hartu behar dira (1601 kodea). Zuzenekoak ez diren jaraunsleen edo alboko jaraunsleen nabaritasun-aktak ez dira kode honetan sartuko, 1638 kodean baizik).

	ESTATUA		EUSKADI	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	15855		433	
2008	42686		1252	
2009	47670		1508	
2010	53092		1748	
2011	55313		1984	
2012	59170		1805	
2013	63581		1913	
2014	65980		2020	
2015	73567		2256	
2016	79828		2740	
2017	83841		2895	
2018	86951		2898	

C.12 Abintestato alboko jaraunsleen nabaritasun-akta

Abintestato alboko jaraunsleen nabaritasun-akta (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 16. multzoa – Aktak. 1638 Abintestato alboko jaraunsleen nabaritasun-akta. Kodeak erreferentzia egiten die Notariotza Legearen 55. eta 56. artikuluek araututako nabaritasun-aktei. Zuzeneko jaraunsle ez direnen, albokoen, nabaritasuna deklaratzen du. Zuzeneko jaraunsleen nabaritasun-adierazpenaren kasuan, ez da egintza juridiko hori adierazi behar, 1630 baizik. Indizearen ondoreetarako, eskatzailearen identifikazioa jaso beharko da, hau da, notarioaren iritziz akta eskatzeko interes legitimoa duenarena. Halaber, komenigarria dirudi kausatzailearen datuak indizean bertan jasotzea. Nabaritasun-adierazpenaren aurreko errekerimendu-akta 1624 egintzan sartuko da.)

	ESTATUA		EUSKADI	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza

2007				
2008				
2009				
2010				
2011				
2012				
2013				
2014				
2015	1086			
2016	3886			
2017	4225			
2018	4445			

C.VII.- Jarauntsiari uko egitea eta alargun-eskubideak azkentzea

C.13 Jarauntsiari edo seniparteari (etorkizunekoari barne) uko egite huts eta soila.

Jarauntsiari edo seniparteari (etorkizunekoari barne) uko egite huts eta soila (egintza-kopurua).

(Iturria: Notario-estatistika. 11. multzoa – Jarauntsiak 1104 – Jarauntsiari edo seniparteari (etorkizunekoari barne) uko egite huts eta soila. Kasu hauetan bete behar da: jarauntsi, legatu edo bestelako oinordetza-delazio batera deituak dei horri dohainik uko egiten dionean, uko egitea beste pertsona baten mesedetan izan gabe (inoren mesedetan uko eginez gero, 1105 kodea aktibatu behar da). 515 kodea aktibatu behar da, uko egitean prezioa bada tarteko. 1104 kode honetan garrantzitsuak dira uko-egilea eta uko egin zaion oinordetzaren kausatzailea. Etorkizuneko jarauntsi edo seniparteari uko egiten zaionean foru-zuzenbideen berezko eratan, ez da kode hau erabiliko, baizik eta ondasunen eskualdatzerik gabeko oinordetza-kontratuei dagokiena.)

	ESTATUA		EUSKADI	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	11047		764	
2008	13126		913	

2009	14603		836	
2010	16342		889	
2011	18933		1103	
2012	23235		1142	
2013	28783		1317	
2014	34340		1548	
2015	37623		1773	
2016	38826		1743	
2017	43001		1824	
2018	46684			

C.14 Jarauntsiari uko egitea, translatiboa

Jarauntsiari uko egitea, translatiboa (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 11. multzoa – Jarauntsiak 1105 - Jarauntsiari uko egitea, translatiboa. Eskritura hauetan bete behar da: oinordetza-titulu baterako (jarauntsia, legatua edo beste edozein) deia hartzen duenak dei horri dohainik uko egiten dionean beste pertsona baten mesederako. Garrantzitsuak dira oinordetzaren eragilea, uko egiten duena eta haren onuraduna. Prezioa egonez gero, ez da kode hori aktibatu behar, 0515 kodea baizik. Kasu hori ez da nahastu behar jarauntsiari uko egite huts eta soilarekin; izan ere, azken horrek ordezpen arruntaren bidezko deia aktibatzen du, edo gehiagotzeko eskubidea, edo, Kode Zibilaren 1000. artikuluaren eta horrekin bat datozenen arabera, oinordetza-lerroaren desbideratzerik ez dakarren beste edozein dei.)

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	761							
2008	772							
2009	828							

2010	808							
2011	800							
2012	777							
2013	689							
2014	741							
2015	756							
2016	687							
2017	776							
2018	826							

C.15 Ezkontzako eskubide ekonomikoei uko egitea

Ezkontzako eskubide ekonomikoei uko egitea (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 03. multzoa - Ezkontzaren ondoriozko kontratuak eta izatezko elkartze edo banantzeei buruzko egintzak 0315 - Aragoiko alarguntasunari uko egitea edo beste uko egite batzuk ezkontzako eskubide ekonomikoei. Kasu hauetan aplika daiteke: Aragoiko ezkontide batek alarguntasunaren ondoriozko eskubide-igurikimenari uko egiten dionean beste ezkontidearen ondasun pribatibo bat edo batzuk besterentzean, dela eskritura berean dela beste eskritura batean; baita beste edozein kasutan ere, baldin eta beste ezkontide horrek itxarote-eskubideren bat — ezkontza-izaerakoa— badu edo horri uko egiten badio, hau da, eskubide potentziala edo etorkizuneko gertaeretatik edo beste ezkontidearen heriotzatik eratorria bada. Arretaz begiratu behar da egintzak ez duela zergapean egon behar. Zergapean egongo balitz, dagokion kodera jo beharko litzateke. Ulertu behar dugu hemen sartuta daudela Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legearen 53. artikuluko alargunaren gozamenaren kommutazioa, eta lege beraren 52., 54. eta 55. artikuluetako alargunaren seniparteari eta biztantze-eskubideei uko egitea; horiek ere ondasun-eskualdatzerik gabeko oinordetza-kontratu gisa zenbatu daitezke.

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	723							
2008	382							
2009	362							

2010	508							
2011	651							
2012	569							
2013	602							
2014	833							
2015	1156							
2016	1613							
2017	1811							
2018	2355							

C.16 Gozamena, erabilera edo biztantzea azkentzea, heriotzagatik

Gozamena, erabilera edo biztantzea azkentzea, heriotzagatik (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 11. multzoa – Jarauntsiak 1106 - Gozamena, erabilera edo biztantzea azkentzea, heriotzagatik. Kasu hauetan bete behar da: gozamen-, erabilera- edo biztantze-eskubide baten azkentzea, gozamendunaren heriotzaren ondoriozkoa, dokumentatzen duten eskrituretan. Garrantzitsuak dira hemen gozamendun hori eta azkentzearen onuraduna, hau da, kasuaren arabera, jabari osoa finkatu duen jabe soila, gozamena eskuratu duen geroko gozamenduna, edo hutsik geratu den zatia gehitu zaion gozamendunkidea edo gozamendunkideak. Zenbatekoa edo munta izango da azkendutako gozamenari eskrituran jarri zaion balioa).

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	3570							
2008	4629							
2009	5038							
2010	6119							
2011	6637							
2012	7494							
2013	7710							
2014	8512							
2015	9269							
2016	9398							
2017	10237							

2018	10955							

C.VIII.- Beste oinordetza-egintza eta -gai batzuk

C.17 Jarauntsia onartzea (adjudikaziorik gabe) edo jaraunsle izatea onartzea

Jarauntsia onartzea (adjudikaziorik gabe) edo jaraunsle izatea onartzea (egintza-kopurua)

(Iturria: Notario-estatistika. 11. multzoa – Jarauntsiak 1101 Jarauntsia onartzea (adjudikaziorik gabe) edo jaraunsle izatea onartzea. Eskritura hauetan betetzekoa: ondasun- adjudikaziorik gabe, pertsona batek edo batzuek onartzen dutenean hildako kausatzaile baten jaraunsle izatea. Kodea, beraz, jaraunsle izate hutsari dagokio, berdin dio jarauntsia huts eta soilik onartzen den ala inbentario-onuraren arabera. Batzuetan, oinordetza osatzen duten ondasunen inbentarioa egin daiteke, normalean behin-behinekoa, ondasun horiek eratxikitzeko egintzarik gabe. Ondasunak eratxikitzen badira, 1103 kodea aktibatu beharko da.)

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	13290							
2008	13660							
2009	13427							
2010	15503							
2011	16110							
2012	17496							
2013	17180							
2014	17907							
2015	19210							
2016	18672							
2017	20396							
2018	22142							

C.18 Jarauntsia inbentario-onuraren arabera onartzea

Jarauntsia inbentario-onuraren arabera onartzea

(Iturria: Notario-estatistika. 11. multzoa – Jarauntsiak 1109 - Jarauntsia inbentario-onuraren arabera onartzea. Eskrituretan bete behar da, baldin eta ondasun-adjudikaziorik gabe, pertsona batek edo gehiagok jarauntsia inbentario-onuraren arabera onartzen badute, Kode Zibilaren 1011. artikuluaren arabera (Borondatezko Jurisdikzioaren Legeak aldatua). Ondasun-eratxikipenik bada, 1103 egintza adierazi beharko da, oinordetza-titulu bidezko adjudikazioa. Ez da nahastu behar Aragoiko fiduziari buruzko ondasun-inbentarioaren kodearekin -1107-).

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007								
2008								
2009								
2010								
2011								
2012								
2013								
2014								
2015	159							
2016	547							
2017	1244							
2018	795							

C.19 Kontulari banatzaile datiboa edo albazea izendatzea

Kontulari banatzaile datiboa edo albazea izendatzea

(Iturria: 14. multzoa – Ahalordetzea 1416- Kontulari banatzaile datiboa edo albazea izendatzea. Kontulari banatzaile datiboa izendatzeko egintza, Kode Zibilaren 1057. artikuluan oinarrituta. Izendapena Notariotza Legearen 50. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egiten da. Garrantzitsuak izango dira kausatzailea eta askatzailea; aukerakoa izango da izendatutako subjektuaren esku-hartzearen berri ematea. 1412 kodetik bereizi behar da, albazea- edo kontulari-banatzailearen karguak onartzeari buruzkoa baita, eta horrekin zerikusia baitu hurrengo egintza gisa. Ez dira sartzen euskal zuzenbide zibileko oinordetza-fiduziaren berezko instituzioak, ez eta komisario bidezko testamentua, alkarpoderosoa edo euskal zuzenbideko bestelako testamentu-ahalordeak ere.)

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007								
2008								
2009								
2010								
2011								
2012								
2013								
2014								
2015	23							
2016	153							
2017	179							
2018	220							

C.20 Inter vivos dohaintzak eta doako eskualdaketak

***Inter vivos* dohaintzak eta doako eskualdaketak**

(Iturria: Notario-estatistika. 07 multzoa - *Inter vivos* dohaintzak eta doako eskualdaketak. 701 – Dohaintzak. Dohaintza-eskrituretan bete behar da, objektua edozein dela, efektiboa barne, berdin dio dohaintza sinplea, kostu bidezkoa, baldintzapekoa edo modala den, tarteko izan edo ez xedatzeko ahalmenaren erreserba, xedatzeko debekuak edo itzulketa-itunak. Ez da hemen sartzen *mortis causa* dohaintza, dohaintza-emailea hil arte aktibatzen ez dena. 1103 kodearen bidez bete behar da hori. Eskudiruz egiten bada, epigrafe honetan sartuko da: «bestelako objektuak», horretarako beteta. Dohaintza errenta edo pentsio bat eratzean badatza, "bestelako objektuak" epigrafearen barruan sartuko da, eta zenbatekoa zerga-oinarriaren arabera zehaztuko da (ikus 1020 kodeko laguntza-testua). Arantzel-oinarriei aplika dakiekeen irizpidea gorabehera, bi pertsonak edo gehiagok, ezkontide izan edo ez, batera ematen badizkiote dohaintzan objektu bat edo batzuk pertsona bati –edo batzuei, baldin eta indibisoan eskuratzen badute, proportzio berean–, 701 kode bakarra dagoela ulertuko da. Aitzitik, eragiketa independente adina 701 kode sartu beharko dira objektu desberdinak dohaintza-hartzaile desberdinei eskualdatzeko, edo dohaintza-emaile desberdinek transmititzen dutenean. Zenbatekoa izango da dohaintzan emandako ondasunei eskrituran jarri zaien balio garbia. Dohaintzaren bidez dohaintza-hartzailea subrogatzen bada dohaintza-emailearen posizio zordun batean, 805 kodea ere aktibatu beharko da. Dohaintza onartzen ez bada, ez da kode hau bete behar, 708 kodea baizik. Irakurri laguntza-testua. Onarpena diligentziaren bitartez gertatzen bada, indizea igorri aurretik, dohaintza onartutzat agerraraziko da. Beraz, baztertzekoak dira indizea bidali eta geroko diligentzia-bidezko onarpenak, eta ez eskritura bananduaren bidezkoak).

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	84289		2407		1741		786	
2008	104383		2451		1789		818	
2009	97377		2210		1723		756	
2010	94925		2074		1663		790	
2011	86032		2405		2555		916	
2012	97346		1823		1043		688	
2013	71182		1089		1350		503	

2014	81454		1288		1152		434	
2015	85348		1287		1176		456	
2016	96762		1194		1092		418	
2017	87734		1274		1141		418	
2018	103705		1306		1207		448	

C.21 Dohaintzak lehengoratzea

Dohaintzak lehengoratzea.

(Iturria: Notario-estatistika. 07 multzoa - *Inter vivos* dohaintzak eta doako eskualdaketak 704 - Dohaintza lehengoratzea. Kasu hauetan guztietan bete behar da: aurreko dohaintza bati erantsitako lehengoratze-itun baten ondorioz, dohaintzan emandako ondasun bat lehengoratzen denean, hau da, ondasun horren titulartasuna dohaintza-emailearengana itzultzen denean edo hirugarren bati doakionean, lehengoratzearen onuradunari. Dohaintzaren arauak aplikatu behar zaizkio kode bat edo gehiago dauden zehazteko; hau da, kontuan hartuko dira alderdi emailearen unitatea eta lehengoratzearen onura hartzen duen alderdiaren unitatea, nahiz eta pertsona batek baino gehiagok osatu, ondore bati edo gehiagori eragiten dion alde batera utzita. Eragiketaren zenbatekoari dagokionez, dokumentuan ematen zaion balorazioa hartuko da kontuan, dohaintzarako aurreikusitako arau berberekin, baldin eta onuradunak zorra bereganatzen badu edo subrogatzen badu; hau da, eragiketa horren zenbatekoa balio gordina izango da, eta, gainera, zortziehun eta bost kodea aktibatuko da zorraren bereganatzerako edo subrogaziorako.

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)
2007	76	159054,81						
2008	72	318593,63						
2009	85	311586,90						
2010	81	394333,80						
2011	71	114206,39						
2012	90	138362,43						
2013	64	270318,72						
2014	78	148414,97						
2015	75	211315,46						
2016	58	235768,35						
2017	55	342710,61						
2018	68	381325,39						

C.22 Dohaintza ezeztatzea edo suntsiaraztea

Dohaintza ezeztatzea edo suntsiaraztea

(Iturria: Notario-estatistika. 07 multzoa - *Inter vivos* dohaintzak eta doako eskualdaketak. 705 - Dohaintza ezeztatzea edo suntsiaraztea. Aktibatu behar da eskriturak aurreko dohaintza bat ezeztatzea dakartzan kasu guztietan, dela dohaintza-emaileak ahalmen hori bere buruari erreserbatu diolako, dela Kode Zibilaren 644 eta 648 bitarteko artikuluetako arrazoiren bat dagoelako, dela aurreko dohaintza bat suntsiarazten delako, alderdiek hala nahi dutelako edo dohaintza horri ezarritako baldintzaren bat betetzen delako. Egintzak bi parte-hartzaile ditu: ezeztatzearen edo suntsiarazpenaren onurak hartzen dituen dohaintza-emailea eta hariek jasaten dituen dohaintza-hartzailea, biak bertan edo ordezkatuta egon, edo haietako bat bakarrik eta bestea absente, baldin eta dohaintzaren konfigurazioak aukera ematen badu haren esku-hartzerik ez izateko. Eragiketaren zenbatekoari dagokionez, dokumentuan ematen zaion balorazioa hartuko da kontuan, dohaintzarako aurreikusitako arau berberekin, baldin eta onuradunak zorra bereganatzen badu edo subrogatzen badu; hau da, eragiketa horren zenbatekoa balio garbia izango da, eta, gainera, 805 kodea aktibatuko da zorraren bereganatzerako edo subrogaziorako.

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)
2007	89	255888,73						
2008	104	214187,75						
2009	104	127377,13						
2010	90	231801,69						
2011	110	129816,88						
2012	103	78042,17						
2013	105	71683,86						
2014	103	115589,80						
2015	74	127566,88						
2016	73	76721,50						

2017	76	10523158,98						
2018	93	198594,90						

C.23 Dohaintza onartzea

Dohaintza onartzea

(Iturria: Notario-estatistika. 07 multzoa - *Inter vivos* dohaintzak eta doako eskualdaketak. 706 - Dohaintza onartzea. Eskritura hauetan bete behar da: dohaintza-hartzaileak edo dohaintza-lehengoratzearen onuradunak lehendik egindako dohaintza onartzen duenetan. Ez da aktibatu behar, beraz, onarpena eta dohaintza aldi berean gertatzen direnean edo onarpena dohaintzaren dokumentu berean jasota dagoenean eta haren datuetan indize eta guzti txertatu denean. Beraz, zenbatekorik gabeko egintza da, baina garrantzitsua zerga-ondorioetarako. Kasu horietan, nahiz eta egintza, berez, zerga-egintza ez izan, onartutako dohaintzari buruzko erreferentzia bat duenez, oso garrantzizkoa da lotutako eragiketaren kodean sartzea egintza jakin horretan onartzen den dohaintzari buruzko aipamen laburra.)

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
Urtea	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)
2007	1016							
2008	694							
2009	538							
2010	609							
2011	577							
2012	575							
2013	438							
2014	509							
2015	629							

2016	597							
2017	574							
2018	653							

C.24 Onartzeke dauden dohaintzak

Onartzeke dauden dohaintzak.

(Iturria: Notario-estatistika 07 multzoa - *Inter vivos* dohaintzak eta doako eskualdaketak. 708 - Onartzeke dauden dohaintzak. Edozein objekturen gaineko dohaintza-eskrituretan bete behar da, dohaintza-hartzailearen onarpena jasota ez badago. Beraz, ez dira sartu behar dohaintza-hartzailea behar bezala ordezkatuta ez dagoen kasuak. Beraz, dohaintza-hartzailea parte-hartzaile absente gisa identifikatu beharko da.)

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko zenbatekoa (€)
2007								
2008	80							
2009	94							
2010	132							
2011	77							
2012	152							
2013	100							
2014	130							
2015	150							
2016	140							

2017	113							
2018	199							

C.X.- Pertsonen duintasuna bizitzaren amaierako prozesuan _Toc62733065

C.25 Eskritura publikoan jasotako aurretiazko borondateak

Aurretiazko borondateak
Iturria: Notario-estatistika. 01 multzoa - Familia-egintzak eta egintza pertsonalak (egintza-kopurua) 103 - Aurretiazko borondateak. Dokumentu hauetan aktibatu behar da: uztailaren 8ko 11/2016 Legea, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa, oinarri hartuta, pertsona batek jarduketa medikoei buruzko jarraibideak ematen dituenean bere nahia adierazi ezin duen egoera baterako, barnean hartuta bere organoen destinoari buruzko erabakiak, talde medikoen aurreko solaskideak izendatzea, gorpuak heriotzaren ostean izango duen destinoari buruzko erabakiak eta araudi horietan aurreikusitako beste batzuk. Kanpoan geratzen dira testamentuak eta azken nahiaren beste xedapen batzuk. Tutorearen izendapenik egonez gero, 108 kodea ere aktibatuko da.

	ESTATUA		**BIZKAIA**		**GIPUZKOA**		**ARABA**	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2008								
2009								
2010								
2011	4614							
2012	4675							
2013	4651							
2014	5002							
2015	5967							
2016	6505							

2017	6681							
2018	6690							

C.26 Norberarentzako tutoretza-kargua izendatzea edo autotutoretza

Norberarentzako tutoretza-kargua izendatzea edo autotutoretza
Iturria: Notario-estatistika. 01 multzoa - Familia-egintzak eta egintza pertsonalak 0108 - Norberarentzako tutoretza-kargua izendatzea edo autotutoretza. Aktibatu behar da pertsona batek beretzako tutore-izendapena egiten duenean ezgaitu deklaratua izaten denerako, bai dokumentu autonomo baten bitartez bai aurretiazko borondateen agiri deritzonaren bitartez. Izendapena egiten duen pertsona da garrantzitsua, ez izendatua.

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	1310							
2008	1672							
2009	1813							
2010	1981							
2011	2598							
2012	2673							
2013	2782							
2014	3103							
2015	3178							
2016	3327							
2017	3400							
2018	3411							

C.27 Aurretiazko borondateak inskribatzea, aldatzea, ordeztea edo ezeztatzea administrazio-eremuan

Aurretiazko borondateak inskribatzea, aldatzea, ordeztea edo ezeztatzea administrazio-eremuan Iturria: Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa.								
	Inskripzio-egintzak		Aldaketa-egintzak		Ordezpen-egintzak		Ezeztatze-egintzak	
Urtea	Guztira	Urte batetik besterako diferentzia (%)	Guztira	Urte batetik besterako diferentzia (%)	Guztira	Urte batetik besterako diferentzia (%)	Guztira	Urte batetik besterako diferentzia (%)
2007								
2008								
2009								
2010								
2011								
2012								
2013								
2014								
2015								
2016								
2017								
2018								

D. ONDARE ZUZENBIDEA

D.I.- Baserria eta beste ondasun higiezin batzuk.

D.1 Nekazaritza-ustiategien kopurua lurralde historikoaren arabera.

Ustiategiko urteko lan-unitateak (ULU), kontuan hartuta ustiategiko urteko lan-unitateak (ULU), unitateak, aldia eta eskualdea

Iturria: EUSTAT. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza-zentsua. EIN: Nekazaritza-zentsua

	Urtea	Euskal Autonomia Erkidegoa	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Ustiategi-kopurua	1989	43193	8136	12318	22739
	1999	39956	7218	12405	20333
	2009	16554	3691	5799	7064

D.2 EAEn nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektorean enplegatutako pertsonak, nortasun juridikoaren arabera eta 2012-2018 aldian

EAEn nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektorean enplegatutako pertsonak, nortasun juridikoaren arabera (enplegatuen kopurua)

Iturria: EUSTAT.

	Pertsona fisikoen esku dauden ustiategietako enplegatuak		Sozietateen eta pertsona ez-fisikoen esku dauden ustiategietako enplegatuak	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2012	7461	% 63	4.449	% 37
2013	8760	% 64	4833	% 36
2014	8482	% 65	4486	% 35
2015	8656	% 65	4643	% 35
2016	7694	% 62	4638	% 38
2017	7382	% 60	5.009	% 40

2018	7215	% 58	5200	% 42

D.3 Titularra edo ezkontidea ez diren beste familiakide batzuen dedikazioa ustiategian

Familia-lana EAEko lehen sektorean: titularra edo ezkontidea ez diren beste familiakide batzuen dedikazioa ustiategian, kontuan hartuta unitateak, aldia, eskualdea eta familia-lana: dedikazio nagusia ustiategian

Iturria: EUSTAT. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza-zentsua. EIN: Nekazaritza-zentsua

Urtea		Ustiategian bakarrik	Bestelako irabazizko jarduera nagusia	Bestelako irabazizko bigarren jarduera
1989	Euskal Autonomia Erkidegoa	9878	8469	484
	Araba	1758	1739	86
	Gipuzkoa	4406	3705	154
	Bizkaia	3714	3025	244
1999	Euskal Autonomia Erkidegoa	5787	6441	352
	Araba	735	976	57
	Gipuzkoa	2705	2937	173
	Bizkaia	2347	2528	122
2009	Euskal Autonomia Erkidegoa	2833	4569	70
	Araba	470	741	20
	Gipuzkoa	1298	1947	25
	Bizkaia	1065	1881	25

D.4 Bereizketak

Bereizketak.
(Iturria: Notario-estatistika, 04 multzoa - Finken aldaketa fisikoa dakarten egintzak 0401 – Bereizketa. Finka-zati bat beste batetik bereizi eta finka independentea osatzeko eskrituretan betetzekoa. Indizearen ondoreetarako, garrantzizkoa da bereizketa egiten zaion jatorrizko finka, hots, azalera murrizten zaiona, alde batera utzita jatorrizko finkatik zati bat, bi edo gehiago bereizten diren; horrek ez baitu aldaraziko 401 kode honen batasuna. Jatorrizko finka bat baino gehiago badago, eta haietako bakoitzetik zati bat edo batzuk bereizten badira, jatorrizko finka adina 401 kode sartuko dira. Aitzitik, hau izango da zenbatekoa edo munta: eskrituran jasotakoa, jatorrizko finka beretik bereizitako zatiari edo bereizitako zatien baturari dagokiena. Finka bat beste batetik abiatuta indibidualizatzeko edozein egintza parekatzen zaio, hitzaren zentzu hertsian bereizketa ez bada ere –adibidez, immatrikulatu gabeko finkak badira–. 401 kode hau aktibatu behar da, baita ere, bereizketa beste egintza nagusi baten oinarri den kasuetan, hala nola bideak doan lagatzean, edo beste finka batekin elkartu edo beste finka bati erantsi aurretik). Interesgarria izango litzateke jakitea zein diren landa-lursailei buruzkoak eta zein etxebizitzei, eraikinei edo hiri-higiezinei buruzkoak, baina ez dugu zehaztapen hori.

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	46472		1164		798		269	
2008	35858		807		559		209	
2009	27344		619		476		168	
2010	25372		661		402		155	
2011	22145		524		417		122	
2012	19484		514		337		108	
2013	16835		548		319		155	
2014	16165		538		286		106	
2015	15713		570		313		101	
2016	14052		470		307		89	
2017	14973		485		301		101	
2018	15970		485		332		112	

D.5 Finkak zatitzea

Zatiketa materiala

(Iturria: 04 multzoa - Finken aldaketa fisikoa dakarten egintzak. 0404 zatiketa materiala. Finka bat zati bitan edo gehiagotan zatitzen den eskrituretan bete behar da, zati horiek finka independente bihurtzen badira. Indizearen ondorioetarako, garrantzitsua da jatorrizko finka zatitua, ez ateratako zatiak. Jatorrizko finka bat baino gehiago badago, eta haietako bakoitza zati bitan edo gehiagotan zatitzen bada, jatorrizko finka adina 404 kode sartuko dira. Zatitutako finkari eskrituran zer balio eman zaion, hori hartuko da zenbateko edo muntatzat. Egilesle gisa, garrantzitsuak dira zatiketa egiten duten jatorrizko finkaren jabeak. Ez da eskualdatze-kodea, eta, beraz, ez du ez BEZik ez gainbalio-zergarik sortzen; bai, ordea, finkaren aldaketa fisikoa katastroaren ondorioetarako. Ez da nahastu behar banaketa horizontalaren kasuekin, ezta banaketa horizontal etzanarenekin ere, edo hirigintzako konplexua eratzearekin, berezko kodea baitute. Zatiketa beste egintza nagusi baten oinarri den kasuetan ere aktibatu behar da, hala nola komunitatea azkentzea). Interesgarria izango litzateke jakitea zein diren landa-lursailei buruzkoak eta zein etxebizitzei, eraikinei edo hiri-higiezinei buruzkoak, baina ez dugu zehaztapen hori.

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	4317							
2008	3238							
2009	2047							
2010	1977							
2011	1569							
2012	1386							
2013	1023							
2014	910							
2015	1011							
2016	813							
2017	974							

2018	970							

D.6 Eransketak.

Eransketa

(Iturria: Notario-estatistika. 04 multzoa - Finken aldaketa fisikoa dakarten egintzak. 0402 Eransketa. Eskritura hauetan bete behar da: finka-zati bat, aldez aurretik independentea edo beste batetik bereizia, beste bati eransten zaionean finka independente bat eratu gabe, baizik eta eransketa jasotzen duen finka nagusiari dagokion erregistro-finkaren zenbakiaren azpian (zati erantsiaren azalera ezin izango da izan nagusiaren ehuneko laurogei baino handiagoa). Indizearen ondorioetarako, bi finkak dira garrantzitsuak, hau da, erantsitako zatia eta eransketa jasotzen duena. Deskribapenari eta indizearen etorkizuneko garapenari begira, eransketa jasotzen duena azken tokian agertu beharko da; zati erantsi bat baino gehiago badira, guztiak joango dira eransketa jasotzen duenaren aurretik. Jabe desberdinak izateagatik, eragiketak, gainera, jabekidetza bat sortzen badu, 515 kodea ere aktibatu beharko da, ondasunen eta eskubideen kostu bidezko beste lagapen batzuk. Interesgarria izango litzateke jakitea zein diren landa-lursailei buruzkoak eta zein etxebizitzei, eraikinei edo hiri-higiezinei buruzkoak, baina ez dugu zehaztapen hori.)

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
Urtea	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	3112		82		0		58	
2008	2675		69		0		39	
2009	2072		66		65		29	
2010	2205		62		58		30	
2011	2001		69		57		21	
2012	1940		60		43		29	
2013	1727		57		64		44	
2014	1786		49		41		17	
2015	1757		43		41		29	
2016	1420		42		51		28	

2017	1573		38		56		32	
2018	1647		57		73		30	

D.7 Finkak elkartzea.

Elkartzea

(Iturria: Notario-estatistika. 04 multzoa - Finken aldaketa fisikoa dakarten egintzak - 0403 Elkartzea. Bi finka edo gehiago elkartuta finka independentea eratzeko eskrituretan bete behar da. Indizearen ondorioetarako, garrantzitsuak dira elkartutako finkak, eta ez elkartzearen ondoriozkoa. Dokumentu berean elkartze bat baino gehiago eginez gero, ateratako finak elkartu adinako 403 kode aktibatu behar dira, eta kode horietako bakoitzaren barruan sartu behar dira kasuan kasuko finka berria sortzen dutenak. Jabe desberdinak izateagatik, eragiketak, gainera, jabekidetza bat sortzen badu, 515 kodea ere aktibatu beharko da, ondasunen eta eskubideen kostu bidezko beste lagapen batzuk. Interesgarria izango litzateke jakitea zein diren landa-lursailei buruzkoak eta zein etxebizitzei, eraikinei edo hiri-higiezinei buruzkoak, baina ez dugu zehaztapen hori)

	ESTATUA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
Urtea	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza	Guztira	Urteko aldakuntza
2007	31257		302		0		234	
2008	22733		249		0		170	
2009	17366		203		125		130	
2010	16726		191		138		120	
2011	14562		162		122		106	
2012	13322		123		114		131	
2013	11268		121		104		104	
2014	11441		128		93		94	
2015	11195		101		109		86	
2016	9980		120		102		113	
2017	11597		111		106		128	
2018	12239		111		118		134	

D.8 Zatiketa horizontala eta antzeko kasuak

Zatiketa horizontala eta antzeko kasuak
(Iturria: Notario-estatistika. 04 multzoa - 0409 Zatiketa horizontala eta antzeko kasuak. Jabetza Horizontalaren Legearen araberako zatiketa-eskrituretan bete beharrekoa; kontzeptu horrekin parekatuko dira zatiketa horizontal etzanekoak. Hirigintza-konplexu bat eratuz gero, halakotzat hartuta jabetza horizontaleko araubidean eratzea entitate konplexu bat, erregistro-unitatea osatzen ez duten hainbat finkaz osatua, 415 kodea aktibatu beharko da. Indizearen ondorioetarako, garrantzitsua da jatorrizko finka zatitua, ez ateratako entitateak. Jatorrizko finka bat baino gehiago badago, eta haietako bakoitzak bere zatiketa jasotzen badu, jatorrizko finka adina 409 kode sartuko dira. Aldiz, azpizatiketa horizontala egiten bada, eta entitate bakoitzari bi kuota badagozkio, bat zatiketa orokorrean eta beste bat azpizatiketan, nahikoa izango da 409 kode bakarra aktibatzea. Zatitutako finkari eskrituran zer balio eman zaion, hori hartuko da zenbateko edo muntatzat. Egilesle gisa, garrantzitsuak dira zatiketa egiten duten jatorrizko finkaren jabeak. Ez da eskualdatze-kodea, eta, beraz, ez du ez BEZik ez gainbalio-zergarik sortzen; bai, ordea, finkaren aldaketa fisikoa katastroaren ondorioetarako. Zatiketa horizontalaren eskrituran bertan estatutuak eta/edo barne-erregimeneko erregelamendu bat onartzen badira, ez da beharrezkoa kode horiek aktibatzea, 409 kodeak xurgatzen baititu. Zatiketa beste egintza nagusi baten oinarri den kasuetan ere aktibatu behar da, hala nola komunitatea azkentzea. Interesgarria izango litzateke jakitea zein diren landa-lursailei buruzkoak eta zein etxebizitzei, eraikinei edo hiri-higiezinei buruzkoak, baina ez dugu zehaztapen hori)

	ESTATUA		EUSKADI	
Urtea	Egintza-kopurua	Batez besteko kapitala (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko kapitala (€)
2007	43743		1014	
2008	30373		1122	
2009	20050		894	
2010	17595		715	
2011	13019		622	
2012	11087		495	
2013	8008		359	
2014	7759		333	
2015	7672		295	

2016	7302		269	
2017	8150		323	
2018	9190		359	

D.9 Zatiketa horizontala aldatzea edo azkentzea

Zatiketa horizontala aldatzea edo azkentzea
(Iturria: Notario-estatistika. 04 multzoa - 0410 Zatiketa horizontala aldatzea edo azkentzea. Kasu hauetan bete behar da: Jabetza Horizontalaren Legearen arabera egindako zatiketa horizontal bati —kontzeptu horren parekotzat hartuta zatiketa horizontal etzanak— higiezin-izaerako aldaketa egiten zaionean, eta horren ondorioz entitate-kopurua aldatzen denean edo haien azalera zuzendu. Beraz, ez du barne hartzen estatutuak edo barne-araudi bat onartzea edo aldatzea, dagozkien kodeen bidez beteko baitira. Bai, ordea, jabetza horizontaleko elementu erkide bat jaregitea eta finka independente bihurtzea. Indizearen ondoreetarako, jatorrizko finka da garrantzizkoa. Eragiketari eskrituran zer balio eman zaion, hori hartuko da zenbateko edo muntatzat. Egilesle gisa, garrantzitsuak dira finka nagusiaren zatiketa egiten duten jabeak, edo, eratuta badago, jabeen erkidegoa. Ez da eskualdatze-kodea, eta, beraz, ez du ez BEZik ez gainbalio-zergarik sortzen; aitzitik, finkaren aldaketa fisikoa eragin dezake katastroaren ondorioetarako. Interesgarria izango litzateke jakitea zein diren landa-lursailei buruzkoak eta zein etxebizitzei, eraikinei edo hiri-higiezinei buruzkoak, baina ez dugu zehaztapen hori)

	ESTATUA		EUSKADI	
Urtea	Egintza-kopurua	Batez besteko kapitala (€)	Egintza-kopurua	Batez besteko kapitala (€)
2007	4119			
2008	3546			
2009	2661			
2010	2340			
2011	1708			
2012	1273			
2013	932			
2014	959			

2015	1087			
2016	1150			
2017	1263			
2018	1516			

D.10 Hirigintza-konplexua eratzea

Hirigintza-konplexua eratzea
(Iturria: Notario-estatistika. 04 multzoa 0415 Hirigintza-konplexua eratzea
